

'Demasiado suficiente', InsohmniOren lan berria

Mungiako Lamiñako estudioetan gogor aritu eta gero, InsohmniOko kideak euren lehen diskoa kalean ikusteko irrikan daude. Hamar abestiz osatuta egongo da, sentimenduz eta bizipenez beterik, eta Censurados-eko Víctor Martínez 'el Moro' eta Shinova-ko Gabri de la Rosaren ahotsak ere izango dituzte bi kantek. Hasteko, diskoaren 1.000 kopia inguru kaleratuko dituzte.

- Hilabete pasatu duzue Lamiñako grabazio estudioetan zuen lehen diskoan lanean. Zer nolako esperientzia izan da?

Uste baino gogorragoa. Urtarrila osoa pasatu dugu horretan buru-belarri. Lehen astean, denok batera grabatzen egon ginen eta ondorengo egunetan gitararak eta ahotsak sartzen egon ginen, punteoak, arregloak... Natxo Liberty eta Jose Lastraren produkziopean aritu gara, oso jende jatorria, benetan.

- Zuen blogean ere horren berri eman zenuten, ezta?

Bai, hasieran bai, baina gero nekatu egiten ginen. 16.00etan hasi eta 2.00ak arte egoten ginen lanean lehen astean, dena ondo bazihoan. Ahotsa eta gitararak grabatzen, berriz, 16.00etan hasi eta goizeko 7.00ak arte egoten ginen batzuetan. Ordu larregi.

- Hortik aparte bakoitzak bere lana du, ezta?

Bai, baina astebetez oporrrak hartu genituen denok. Estudioan bizi ginen, goiko solairuan etxe bat duelako, bestela ezinezkoa litzateke. Estudio gehienetan, musika tresna bakoitza bere aldetik grabatzen da (bateria, gero gitararak, gero ahotsak...), baina guk dena batera grabatu nahi genuen. Emaizta ezberdina da, diskoa biziagoa da, naturalagoa: taldea zuzenean jotzen.

- Zuek sortu dituzue abesti guztiak?

Bai, guk sortutakoak dira abesti denak. Guztion artean konposatutakoak edo bakar batek osatuak. Sentimenduak, sentsazioak, pentsamenduak..., gertatzen zaizkizun gauzei buruz hitz egiten dute gure abestiek. Immigrazio eta gudaren inguruko abestiak daude baita ere.

- Zaila da guztien artean ados jartzea?

Bai, orokorrean bai. Baina normalean musika zati bat sortzen duzu gitarrarekin



InsohmniO: Víctor (gitarra), Enrique (baxua), Cillo (ahotsa), Frank (bateria) eta Ivan (gitarra).

eta hortik aurrera letra sortzen joaten da.

- 2006an maketa atera zenuten. Zuen musika aldatu egin da urte hauetan?

Bai, modu nabarmenean gainera. Lehen rock gehiago jotzen genuen, eta punk-a abesti batzuetan. Orain metaleroagoak gara, gehiago gustatzen zaigu.

- Nola dago diskoa gaur egun?

Grabazioaz gain, beste hainbeste kontu ere landu behar dira: portadaren diseinua, barruko argazkiak, CDaren formatua... gauza asko aukeratu behar dira. Huskeria ematen dute, baina lan handia eskatzen dute. Hala ere,

martxoaren bukaeran edo apirilaren hasieran diskoa kalean egotea espero dugu.

- Banaketa ere prest duzue?

Tabernetan ipiniko dugu salgai eta horretaz gain, hiru banatzaile izango ditugu: SoundRebel, DDT eta Juan Sin Tetxo.

- Kontzerturik?

Bai, momentuz martxoaren 26an Bilboko '7 Katu' gaztetxean joko dugu eta VertigorRocken baita ere. Ea gehiago irteten zaizkigun.

Informazio gehiago Facebook, www.insohmniO.com eta www.inshitu.blogspot.com (grabazio-egunkaria).

Dorleta Vidal

Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak

UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Quetzal

Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065

SAGARDUI
bolsos

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Proba-Leku

Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42